

Herriko kontseiluaren 2017.01.12ko bilkura

Hastapena: 20:40

Hor zirenak: Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Betti Bidart, Bernadette Mousquès, Isabelle Arangoits, Frantxoa Mocho, Annie Juantorena, Sébastien Clauzel, Betti Olçomendy, Monika Indart, Eñaut Larre, Jean-Baptiste Lambert, Marie-Baptiste Etcheverry, Christelle Errecart, Dominique Mendibil.

Ezin jina jakinarazia zutenak/Hor ez zirenak: Agnès Gorostiague.

Gai zerrenda:

1. Lehenago eskolaren berritzeko eskaintza deialdiko obra multzoen banaketa: 2016ko abenduaren 21eko eskaintza deialdien batzordearen ondorioz, ondoko enpresak atxikiak dira: bideak eta sare desberdinak: Bategin (47 978,50 €, zergarik gabe), obra larria: Bategin (57 031,71 € zergarik gabe), teilatuko zureria: Bategin (31 463,38 € zergarik gabe), maiasturu lana: Bategin (52 328,70 € zergarik gabe), igeltsero lana: Isolan (37 673,84 € zergarik gabe), zoladura malguak: Bategin (6214,53 € zergarik gabe), zoladura finkatuak: Bategin (11 044,98 € zergarik gabe), berokuntza: Bategin (35 731,74 € zergarik gabe), iturgintza/berokuntza: Bategin (16 410 € zergarik gabe), elektrika: Bategin (44 614 € zergarik gabe), tindu lanak: Bategin (17 473,85 € zergarik gabe), altxagailua: lumana (16 300 € zergarik gabe). Orotarat, 374 265,23 € heldu da, zergarik gabe. Eskaintza deialdiko obra multzoen banaketa ontzat emana da, 15 boz alde, 3 abstentzio.
2. Inbestizamendu gastuen ordaintzea, buxet nagusia eta ur garbitzea bozkatu aitzin: Buxet nagusia bozkatu aitzin Herriaren inbestizamendu gastuak ordaindu ahal izaiteko, deliberamendu bat behar da. Herriko kontseilua, buxetak bozkatu aitzin, inbestizamendu gastuak ordaintzearen alde agertu da.
3. Jendarmerian egin beharreko obrak: Xazizetan egin behar den isolazioa (lehenago deliberatua) ez da oraino hasia. Bertzalde, jendarmeriako apartamenduetako zoladuren (edo zurezko zoladurak, edo PVCzkoak) berritzeari lotu bertze debis batzuk errezibitu ditugu: SARL ZURGINTZA (PVCzko zoladurak) 46 850 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe; SCOP ARL ZURLAN, 48 729.70 €-ko zenbatekoan (zurezko zoladurak), zergarik gabe, eta 41 486.26 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe (PVCzko zoladurak).

Herriko kontseilua, aho batez, SCOP ARL ZURLAN (PVCzko zoladurak) enpresaren hautatzearen alde agertzen da, 41 486.26 €-ko zenbatekoan (zergarik gabe), jendarmerian egin beharreko obrendako.

4. Ezker paretan egin beharreko obrak: Ezker paretan, obrak lehenbailehen egin behar dira: argiek eta txanponen tresnak arazoak sortzen dituzte. Txanponen tresnarendako, debis bat proposatua izan da, 895 €-tan, zergarik gabe. Argietan, zirkuitulaburra bada. Argi proiektagailu guzien aldatzea proposatua da (kontsumo gutiko 25 argi proiektagailu berri, oraingo 36 proiektagailuen ordezkatzeko). Argi Egin enpresak debis bat proposatu du, 19 424 €-tan, zergarik gabe.
Herriko kontseilua, aho batez, Argi egin enpresaren hautatzearen alde agertzen da, ezker paretan egin beharreko obrendako.
5. Perkain elkartearakilako hitzarmena: Perkain elkartearakilako hitzarmena berritu behar da (2 oren astean, eskola bakotxean, eskola publikoan eta eskola pribatuan).
Perkain elkartearakilako hitzarmenaren berritzea aho batez bozkatua da.
6. Teknikari eta laguntzaile tekniko postuaren sortzea: Deliberamendua geroko utzia da, behar diren dokumentuak ez baitira aski goiz emanak izan.
7. Eskolako egoitzen baliatzeko hitzarmena: Urte guziz berritu behar da, haien baliatzea posible izan dadin.
Herriko Kontseilua, aho batez, baliatzeko hitzarmen horren berritzearen alde agertu da.

Bukaera: 21:25.